



Iruñeko Udalaren 2015eko Memoria

Lankidetzak

Iruñeko Udalak Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programa dauka, 1996tik aurrera, herrialde pobreenetako edo Hegoaldeko herrialdeetako herriei eta komunitateei laguntze aldera.

Hona hemen programaren helburuak, zeinek, aldi berean, jarduketa-ildoak zehazten baitituzte:

Garapenari eta nazioarteko elkartasunari laguntza emateko udal-politika garatzea.

Herrialde eta komunitate pobreenetako egoeraren berri ematea eta horiek egoera hori gaitzetzeko egiten dituzten ahaleginak jakinaraztea (sentsibilizazioa), bai eta garapenaren aldeko hezkuntza sustatzea ere, Iruñeko esparruan.

Laguntza ematea, Hegoaldeko herrialdeetan giza garapenerako programak egiteko.

Hondamendi naturalek edo giza jatorriko gatazkek eragindako giza larrialdietako egoeretatik edo laster gertatu beharreko arrisku batetik datozen ondorioak arintzeko jarduketak sustatzea.

Egiten diren jarduketak ebaluatzeko lerro bat mantentzea, programaren berriazko zati bat bezala.

Komunikazio eta partaidetzarako bideak sustatzea, Iruñeko Udalaren eta Iruñean garapenaren aldeko lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren esparruan etengabe lan egiten duten GGKEen, taldeen eta erakundeen artean.

1.248.548 euroko aurrekontua bideratu zen 2015ean jarduketa horiek egiteko, hau da, Iruñeko Udalaren aurrekontuaren % 0,7. Horrek esan nahi du lortu egin dela Nazio Batuen Erakundeak garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzara bideratzea gomendatzen duen gutxieneko ehunekoa.

Horrenbestez, hiriko auzokide bakoitzeko 6,37 euroko ekarpena egin da.

Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programak diru-laguntzetarako lau deialdi bultzatu zituen 2015ean, Iruñean finkatuak dauden eta jarduerak bertan egiten dituzten Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeei (GGKE) laguntza emateko.

Deialdi horietako bi, Iruñean garapenaren aldeko sentsibilizazioa eta hezkuntza lantzen dituzten proiektuetara bideratzekoak ziren; beste bat nazioarteko garapenerako proiektuetara bideratzekoa da, beste herrialde batzuetan, eta laugarrena, giza larrialdiko ekintzetara bideratzekoa.

2015ean, garapenaren aldeko sentsibilizazio- eta hezkuntza-arloaren barnean, Iruñean egitekoak ziren 17 proiektu lagundu zituen diruz Iruñeko Udalak, 90.000 euroan.

Haien artean, elkartasunaren gaineko prestakuntza-ekimenak zeuden, adibidez bidezko merkataritza eta ekonomia solidarioari buruzkoak, giza eskubideei edo genero berdintasunari buruzkoak, bai eta Saharaz hegoaldeko herrialde afrikarren egoera ezagutzeko jarduerak ere.

Unean uneko jardueren deialdian, 9 jarduketa babestu ziren –haien artean, analisi- eta eztabaida-jardunaldiak, pertsona errefuxiatuen gaia sakon jorratzekoak; argazki-erakusketak; edo turismo arduratsuari buruzko buletin digital bat–, guztira 9.600 euro emanik.

Urte horretako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko deialdia bi modalitatetan planteatu zen.

Haietako lehenbizikoan, Udalak 31 proiektu lagundu zituen diruz 19 herrialdetan; zenbatekoak, guztira, 820.000 euro jo zuen.

Proiektuen % 83 gizarte-izaerako oinarrizko azpiegiturei lotuta zeuden (osasuna, hezkuntza, gizarte zibileko erakundeak bultzatzea, ura eta saneamendua, populazioari zuzendutako programak, ugalketa-osasunekoak, etab.).

Beste finantzazio-modalitatea Hegoaldeko Toki Entitateen Garapenerako Lankidetzako Proiektuak bultzatzera zuzendu zen; ildo hori 2006an abiatu zen, eta gehienez hiru urte irauten duten proiektuetara bideratuta, Hegoaldeko udalek berek sustatutako toki garapenerako ekimenak babestu nahi zituen.

2015ean, Peru eta Nikaraguako bi proiektuekin hartutako konpromisoei erantzuten jarraitu zen.

Azkenik, giza larrialdietarako jarduketan deialdiaren xedea da hondamendi naturalen edota biztanleria zibila ukitzen duten giza jatorriko gatazken ondorioak arintzea, eta, urte horretan, 72.000 eurokoa izan zen azken aurrekontua horretarako.

Larrialdiko sei jarduketa finantzatzeko aukera eman zuen lan-ildo horrek.

Lagundutako proiektu gehienak (haietako bost) gerren ondorioz errefuxiatu edota lekualdatu behar izan duen jendea laguntzera bideratu ziren: bi kasutan, saharar errefuxiatuak, eta beste hirutan, Kongoko (Ipar Kivu), Irakeko eta Siriako jende errefuxiatuak

Lurrikarek Nepalen kalteturiko jendearentzat bideratu zen seigarren proiektu bat, 2014ko apirilean eta maiatzean lurrikarek hondatu baitzuten herrialdea.

2015ean, Iruñeko Udalak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuen berriz ere Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde Nafarroako Koordinakundearekin (GGKENK), Koordinakundeak berak hirian kudeatzen duen Argibide Bulegoa mantentzea finantzatzen laguntzeko.

Udalak 30.400 euro eman zituen; hau da, bulegoaren kostu guztiaren % 87,1.

Bulego horretan zuzeneko arreta egiten da, hamabostean behingo aldizkari bat argitaratzen da, entitateen direktorio bat eta GGKEen jardura-agenda bat mantentzen da, bai eta www.congdnabarra.org webgunea ere, zeinak 2015ean 23.230 bisita izan zituen.

Halaber, udal-programa horrek sare-lana egiten jarraitu zuen lankidetzaz deszentralizatuaren arloko beste erakunde batzuekin batera, hainbat lan-batzorderen bidez.


Bilkurak egiten jarraitu zen, pertsona, kolektibo eta GGKEekin, eta 10 harrera ere egin zitzaizkien udalarekin elkarlanean aritzen diren Hegoaldeko zenbait erakunde edo instituziori; bestalde, Garapenerako Lankidetzarako Udal Kontseiluan parte hartzea bideratu zen.

Guztira 71 proiektu babestu ziren 2015ean zehar.

Jarduketa-ildoei dagokienez, aurreko urteetako antzeko ehunekoak mantendu ziren, eta Garapenerako Lankidetzako Proiektuek jaso zuten aurrekontu betearen zatirik handiena (% 82,0 - % 73,8, jarduketetara bideratutako diruak edo Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programaren diru guztiak kontuan hartzen diren).

Garapenaren aldeko Sentsibilizazio eta Hezkuntza Jarduketetara eta Giza Larrialdietarako Jarduketetara % 11,6 - % 10,4 eta % 6,4 - % 5,8 bideratu zen, hurrenez hurren.

1. Koadroa



■ Sentsibilizazioa eta GAH ■ Garapena ■ Giza larrialdia ■ GLUPren funtzionamendua

1. Koadroa: 2015eko aurrekontua - Aurrekontuaren betetze-maila

LAN-ILDOA	Proiek.zk.	2015ekobetetze-maila	Ehuneko(%)
SENTSIBILIZAZIOA	27	130.000	10,4% / 11,6%
- Diru-laguntzetarako deialdia: Unean uneko jarduketak	9	9.600	0,9%
- Diru-laguntzetarako deialdia: Urteko proiektuak	17	90.000	8,0%
-Lankidetz-hitzarmena: Argibidea eta Koordinazioa	1	30.400	2,7%
TOKI-GARAPENA	38	922.000	73,8% / 82,0%

-Diru-laguntzetarako deialdia:Urteko proiektuak	31	820.000	73,0%
- Diru-laguntzetarako deialdia, Hegoaldeko toki-entitateentzat	1	60.000	5,3%
- Garapenaren aldeko Lankidetzako Toki Funtza (NUKF)	6	42.000	3,7%
GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA	6	72.000	5,8% / 6,4%
- Diru-laguntzetarako deialdia: Giza larrialdia	6	72.000	6,4%
Garapenaren aldeko Lankidetzako Udal Programaren JARDUKETEN GUZTIZKO PARTZIALA	71	1.124.000	90% / 100%
GLUPen JARDUNAREN GUZTIZKO PARTZIALA		124.548	10%
GUZTIRA GAUZATUA		1.248.548	100%

2. koadroa: 2015eko aurrekontuaren betetze-maila: Finantzaketaren banaketa geografikoa Geografia-esparrua

Geografia-esparrua	€	%	Geografia-esparrua	€	%
Hego Amerika	256.061	22,8%	Afrika	385.454	34,3%
Bolivia	114.978		Kamerun	7.020	
Kolonbia	75.076		Txad	29.661	
Paraguai	5.271		Ghana	32.045	
Peru	60.736		Guinea Bissau	67.220	

<i>Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibe</i>	258.735	23,0%	Kenya	31.924	
El Salvador	85.225		Mauritania	7.020	
Haití	10.000		Errefuxiatu sahararrak	79.300	
Mexiko	24.100		Kongoko Errepublika Demokratikoa	84.120	
Nikaragua	117.247		Rwanda	21.100	
Dominikar Errepublika	22.163		Sierra Leona	26.044	
<i>Asia</i>	39.650	3,5%	<i>Ekialde Ertaina</i>	54.100	4,8%
India	27.650		Irak	12.000	
Nepal	12.000		Siria, Arabiar Errepublika	12.000	
<i>Europa</i>	130.000	11,6%	Palestinako Lurralde Okupatuak	30.100	
Iruña	130.000				
Guztira: 1.124.000 Euros					

Udal-programak lagundutako garapenaren aldeko lankidetza-jarduketan banaketa geografikoari dagokionez, hiru eremu handi daude (Erdialdeko Amerika-Mexiko-Karibe, Afrika eta Hego Amerika). Guztira, udal-finantzaketaren % 80,1 jaso zuten (% 90,6, ez badira kontuan hartzen Iruñean egindako sentsibilizazio-proiektuak).

24 herrialdek jaso zuten 2014an udal-finantzaketa, eta Nikaragua eta Bolivia izan ziren laguntzen hartzaile nagusiak (funts guztien % 10,4 eta %, 10,2 jaso zuten hurrenez hurren).

Gero hauek datoz:

El Salvador (% 7,6), Kongoko Errepublika Demokratikoa (% 7,5), errefuxiatu sahararrak (% 7,1), Kolonbia (% 6,7), Ginea Bissau (% 6,0) eta Peru (% 5,4).

Zortzi herrialde horietako bakoitzak gutxienez ere 60.000 euro jaso zituen eta guztien artean

programaren % 60,8 bildu zuten (% 69, ez badira kontuan hartzen sentsibilizazioa eta garapenaren aldeko hezkuntzara bideratutako funtsak).


Jarduera-sektoreei dagokienez, herritar onuradunen oinarrizko beharrak asetzerantz bideratutako proiektuen aldeko apustuari eutsi zion programak argi eta garbi, bai eta jarduketan izaera integrala nabarmentzen duten proiektuei zein gizarte zibileko erakundeak indartzea eta genero-gaiak lantzea xede zuten proiektuei ere.

Hona 2015ean udal-finantzaketaren ehunekorik handienak jaso zituzten sektoreak:

Gobernua eta gizarte zibila (% 19,7), Osasuna (% 16,3), Ura eta saneamendua (% 15,6), Sentsibilizazioa Iparraldean (% 11,6), Bestelako gizarte-azpiegiturak (% 6,7), Proiektu integralak (% 5,8) eta Larrialdi-egoeretarako laguntzak (% 5,3).

Lankidetzarako udal-funtsen % 86,2 bideratu zen zazpi jarduketa-sektore horietara.

2. Grafikoa



 Gizarte-Azpiegiturak	 Ondasun-honiketen bidezko laguntza eta laguntzako programa orokorrak
 Ekonomia-Azpiegitura eta Zerbitzuak	 Larrialdiko Laguntza
 Ekoizpen-Proiektuak	 Sentsibilizazioa eta GaH
 Sektore anitzeko Proiektuak	